



**ERABAKIA, MUNGIA KIROL KLUBAK JARRITAKO ERREKURTSOA
EZESTEKO DENA. ERREKURTSOA EUSKADIKO FUTBOL
FEDERAKUNDEAREN APELAZIO BATZORDEAREN 2017KO APIRILAREN
10EKO ERABAKIAREN AURKA JARRI ZUEN; HAREN BIDEZ, JARRITAKO
ERREKURTSOA EZESTEN ZEN**

Espediente-zenbakia: 36/2017

AURREKARIAK

Lehena.- 2017ko maiatzaren 11n, Euskadiko Futbol Federakundeak (aurrerantzean, EFF) Kirol Justiziako Euskal Batzorde honi (aurrerantzean, KJEB) bidali zion Mungia kirol-klubak (aurrerantzean, errekurtsogilea) jarritako errekurtsoari buruzko dokumentazioa. Errekurtsoa Euskadiko Futbol Federakundearen Apelazio Batzordearen (aurrerantzean, Apelazio Batzordea) 2017ko apirilaren 10eko erabakiaren aurka jarri zuen; haren arabera, errekurtsogileak jarritako errekurtsoa ezesten zen.

Errekurtsoarean asmoa zen aurkako taldea, Ibarreko Kirol Kluba, irabazitako partidaren galerarekin zeha zedila, jokalaria kopurua behar ez bezalakoa izateagatik; izan ere, ez zen bete zelaian taldeko eta jokatzeko ari den kategoriako lizentzia duten 7 jokalaria gutxienez egotea eskatzen duen araua.

Era berean, eskatu zuen lizentziak eta datak egiaztatu eta datuen bitartez froga zitezela, eta zegokionari zehapena ezartzea, gertatutakoaren arabera, edozein axolagabekeriagatik edo erregelamenduko faltagatik. Gainera axolagabekeria-akusazioak egin zizkion Apelazio Batzordeari, gertaerak ez ikertzeagatik, ulertzen baitzuen tratu mesedegarria egon zela, Ibarreko klubeko entrenatzaile eta zuzendaria aldi berean Bizkaiko selekzioko gazteen hautesleak direlako.



Bigarrena.- KJEBk erabaki zuen EFFri espedientea eskatzea eta egoki iritzitako alegazioak formulatzeko epe bat ematea, hala Ibarreko Kirol Klubari nola Federakundeari berari. Alegazioak 2017ko maiatzaren 22an eta 15ean aurkeztu ziren, hurrenez hurren.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

Lehena. KJEBk errekurtsio hau ebazteko eskumenak ditu, urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren (Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duena) 3.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Bizkaiko Futbol Federakundearen Erregelamendu Orokorren 91.4 artikulua honako hau ezartzen du:

«Partida hasteko, gutxienez zazpi futbolarirekin esku hartu behar du taldeetako bakoitzak. Kopurua txikiagoa bada, arbitroak partida bertan behera uzteko erabakia hartuko du, eta horrela jokatu duen kluba agertu ez dela hartuko da, ezinbesteko kasuetan salbu.

Taldeak, gutxienez, zazpi jokalariz eratuta egongo dira eta jokatzen duten kategoriako plantillakoak izango dira.

Edozein arrazoiengatik, jokalaria baten kanporatzea edo min hartuagatik ordezkatzeko barne, taldea aurreko puntuan azaldutako zazpi jokalaria horiek baino gutxiagorekin geratuko balitz, arau-haustea egingo du, bidegabeki osatuta egoteagatik».

Errekurtsogileak planteatzen du ezen, partida hasi aurretik, aurkako taldearen federazio-lizentziak aztertzean, ikusi zuela eskualde-mailako lehen kategoriako lizentziak ez ezik eskualde-mailako bigarren kategoriako taldeko lizentziak ere bazituela.



Hasiera batean, egoera horrek ez du Erregelamendua urratzen, baldin eta zelaian taldeko eta jokatzeko ari den kategoriako lizentziak dituzten 7 jokalarik badaude gutxienez.

Hala ere, partidaren zehar hainbat inguruabar suertatu ziren, arbitroaren aktan idatziak, eta jasotzen dutenaren arabera, partidaren zenbait unetan ez zeuden lehen taldeko lizentzia duten 7 jokalarik joko-zelaian, arauak behartu bezala.

Ibarreko klubak, bestalde, desadostasuna eta ondoreza agertu zuen Mungia kirol-klubak bere aurka eta bere kirol-zuzendariaren eta gazteen A kategoriako entrenatzailearen aurka egindako salaketei dagokienez; izan ere, 2017ko martxoaren 11ko partida jokatu bitartean ez zen egon jokalarizerrera desegokirik, joko-zelaian ez baitzen egon inongo unetan lehen taldeko lizentzia zuten 7 jokalarik baino gutxiagorik, araudiak eskatu bezala.

Alegazioak oinarritzeko dokumentuak eman zituen (R.V.C eta A.G.L. jokalarien lizentzien kopiak; horiek jokalarizerrera sartzeak sortu zituen zalantzak eta arbitroaren akta).

Bestalde, EFFk Ibarreko Kirol Klubeko jokalarizerrera sartu ziren jokalariei dagozkien lizentzia guztiei buruzko datuak eman zituen, eta azaldu zuen zuzenak zirela.

KJEBk espedientean dagoen dokumentazioa aztertu du (arbitroaren akta, lizentzien datuak eta alderdien alegazioak), eta ondorioztatu du ez zela egon jokalarizerrera desegokirik; izan ere, R.V.C eta A.G.L. jokalariek Gazteen Lehen Mailako lizentzia dute, ez Bigarren Mailakoa errekurtsogileak baieztatu bezala, eta, beraz, ez dagokio inolako zehapenik jartzea.



Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzardeak, honako hau

ERABAKI DU:

Ezestea XXXXXXXXXXXXXXXX jaunak, Mungia kirol-klubeko presidente gisa, Euskadiko Futbol Federakundearen Apelazio Batzardearen 2017ko apirilaren 10eko irizpenaren aurka jarritako errekurtoa.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtoa aurkez dezakete Kirol Justiziako Euskal Batzardean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 15a.

JOSÉ LUIS IPARRAGIRRE MUJICA

Kirol Justiziako Euskal Batzardeko presidentea